Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko apirilaren 20a, osteguna — 75 — Jueves, a 20 de abril de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OÑATIKO UDALA

*Iragarkia, Oñatiko Udaleko Udaltzaingoaren Ofizial ondoko lanpostua barne-sustapenez betetzeko prozesuaren deialdia eta oinarri arautzaileak onartzen dituena.*

Alkateak, 2023ko apirilaren 5ean, 2023/530 zk. Erabakia hau hartu du:

*Lehena.* Onestea Udaltzaingoaren Ofizial ondoko lanpostua barne-sustapenaren bidez betetzeko prozesuaren deialdia eta oinarri arautzaileak, 2022. urteko Lan Eskaintza Publikoari dagokiona (2022/541 Alkate Dekretua).

*Bigarrena.* Deialdi honen iragarkia eta oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadin agintzea.

*Hirugarrena.* Udaletxeko iragarki taulan eta www.onati.eus web orrian argitaratzea.

Oñati, 2023ko apirilaren 5a.—Izaro Elorza Arregui, alkatea. (2639)

ERANSKINA

*Udaltzaingoaren ofizial ondoko plaza bat barne sustapena eta lehiaketa bidez hornitzeko hautaketa prozesua arautzeko oinarri bereziak.*

1. *Deialdiaren helburua.*

Deialdi honen xedea da Udaltzaingoaren ofizial ondoko plaza bat karrerako funtzionarioekin betetzea, barne sustapen eta lehiaketa bitartez. Lanpostu horren sailkapena hau da: Udaleko funtzionario plantillako C1 azpitaldea, 1/2020 Legegintza Dekretuaren 35 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Plaza hori jasota dago Oñatiko Udaleko 2022. urteko Lan Eskaintza Publikoan (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 99 zk., 2022ko maiatzaren 26a) barne sustapenaren bidez hornitu zedin.

Lehiaketa bidezko hautaketa prozesua Euskal Herriko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian egin beharreko prestakuntza-ikastaroarekin eta praktikaldiarekin osatuko da.

Deialdia xedatuko dute oinarri hauek, lehenago adierazitako oinarri orokorrek eta oro har aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoak.

2. *Plazen eta lanpostuen ezaugarriak.*

Plaza eta lanpostuaren ezaugarriak ondokoak dira:

— *Plaza:* Ofizial ondokoa.
*Lanpostua:* Udaltzaingoaren ofizial ondokoa.
*Araubide juridikoa:* funtzionarioa.
*Plaza kopurua:* 1.
*Saila:* Udaltzaingoa.
*Taldea:* C1.
*Destino osagarria:* 22.
*Berariazko osagarria:* 23.377,80 €.
*Eskala:* Administrazio berezia.

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Anuncio por el que se aprueba la convocatoria y bases reguladoras del proceso de provisión por promoción interna del puesto de Oficial Adjunto de Policía Local del Ayuntamiento de Oñati.*

La Sra. Alcaldesa, con fecha 5 de abril de 2023, n.º 2023/530, ha adoptado el siguiente Acuerdo:

*Primero.* Aprobar la convocatoria y bases reguladoras del proceso de provisión por promoción interna del puesto de Oficial Adjunto de Policía Local correspondiente a la Oferta de Empleo Público 2022 (Decreto de alcaldía 2022/541).

*Segundo.* Ordenar la publicación del anuncio y bases de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercero.* Publicar en la página web y tablón de anuncios del ayuntamiento.

Oñati, a 5 de abril de 2023.—La alcaldesa, Izaro Elorza Arregui. (2639)

ANEXO

*Bases específicas que han de regir el proceso selectivo para la provisión, mediante concurso, de una plaza de oficial adjunto de la Policía Local.*

1. *Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de la presente convocatoria la provisión con funcionarios de carrera, mediante promoción interna y concurso, de una plaza de oficial adjunto de la Policía Local. Este puesto de trabajo se clasifica en el subgrupo C1 de la plantilla funcionarial del Ayuntamiento, según lo dispuesto en el artículo 35 del Decreto Legislativo 1/2020.

Dicha plaza está recogida en la Oferta Pública de Empleo del año 2022 del Ayuntamiento de Oñati (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 99, de 26 de mayo de 2022) para su provisión mediante promoción interna.

El proceso de selección por concurso se completará con el curso de formación y el periodo de prácticas en la Academia Vasca de Policía y Emergencias del País Vasco.

La convocatoria se regirá por las presentes Bases, por las Bases Generales antes citadas y por lo dispuesto en el resto de la normativa de general aplicación.

2. *Características de las plazas y puestos de trabajo.*

Las características de la plaza y del puesto son las siguientes:

— *Plaza:* Suboficial.
*Puesto:* Suboficial de Policía Local.
*Régimen jurídico:* funcionario.
*Número de plazas:* 1.
*Departamento:* Policía Local.
*Grupo:* C1.
*Complemento de destino:* 22.
*Complemento específico:* 23.377,80 €.
*Escala:* Administración especial.

EK\CV GAO-I-2023-02639

*Azpieskala:* Zerbitzu bereziak.
*Klasea:* Udaltzaingoa.
*Titulazioa:* Batxilergoa, bigarren mailako Lanbide Heziketa edo horren mailakoa, eta B motako gidabaimena.
*Lanaldia:* % 100.
*Hizkuntza eskakizuna:* 3.
*Derrigortasun data:* gainditua.
*Funtzioak:* funtzioen eskuliburuan eta egungo legedian ezartzen direnak.

3. *Lanpostuaren eginkizunak.*

Funtzio nagusia hau da:

Segurtasunaren arloko zerbitzuak eta ordena publikoaren mantentze-lanak zuzendu, programatu eta kontrolatzea, eta arlo pertsonaleko nahiz materialeko baliabideen eraginkortasunaz eta efizientziaz arduratzea.

Lanpostuaren eginkizun espezifikoak, berriz, hurrengoak dira:

— Alkateari edo, hala badagokio, zinegotzi ordezkariari antolaketa-neurriak eta plangintza- eta koordinazio-proiektuak proposatzea, zerbitzua ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

— Alkateari edo, hala badagokio, zinegotzi ordezkariari plantilla handitzeko proposatzea, herritarrei eskaini beharreko zerbitzuak, egin beharreko helburuak eta horiekin lotutako zereginak betetzeko behar diren langileak kontuan hartuta.

— Taldeak definitzea eta horietako bakoitza zein eragilek osatuko duten zehaztea.

— Zerbitzu berezietako bakoitza osatu behar duten langileak izendatzea, beharrezkoa izanez gero.

— Udaltzaingoaren zerbitzu guztien jarduna eta funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, eta zerbitzu horiek hobeto funtzionatzeko egoki iritzitako aginduak eta jarraibideak ematea.

— Alkateari edo zinegotzi ordezkariari plantillaren urteko lanegutegia proposatzea, bai eta agenteen opor-egunak baimentzea ere.

— Udaltzaingoaren aurrekontu-proposamenak egitea.

— Kidegoko kideei diziplina-prozedurak hasteko proposatzea alkateari, horien jardunak hala eskatzen duenean, eta goraipamenak edo zorionak ematea, kidegoko langileek jaso ditzaten.

— Langileen lanbide-heziketa eta prestakuntza iraunkorra bermatzeko behar diren proposamenak egitea.

— Eratuta egonez gero, Segurtasuneko eta Babes Zibileko Toki Batzarretako kide izatea.

— Korporazioari laguntzea, hura agertzen den eta hala eskatzen zaion egintza publikoetan.

— Beste polizia-kidego batzuetako buruzagitzekin, Probintziako Trafikoko Buruzagitzarekin, babes zibileko organoekin eta erakunde judizialekin behar den komunikazio-maila mantentzea, trafikoaren, segurtasunaren eta herritarren babesaren arloan lankidetza eraginkorra izan dadin.

— Udalean ezartzen diren batzordeetan parte hartzea, hala eskatzen zaionean.

— Kidegoko lehen mailako eragile-taldearekin bilerak deitzea, interesgarritzat jotzen dituen eta zerbitzuei edo pertsonei eragiten dieten gaiak lantzeko.

— Egin beharreko material-eskuraketak edo erosketak koordinatzea.

— Hileko lehen astelehenean alkatearekin edo zinegotzi ordezkariarekin biltzea, udalerriarentzat interesgarriak diren gaiak lantzeko.

— Indarrean dagoen legerian ezartzen diren beste guztiak.

*Subescala:* Servicios especiales.
*Clase:* Policía Municipal.
*Titulación:* Titulación de Bachiller, Formación Profesional de segundo grado o nivel y permiso de conducir de la clase B.
*Jornada:* 100 %.
*Perfil lingüístico:* 3.
*Fecha de preceptividad:* superado.
*Funciones:* las que se establecen en el manual de funciones y en la legislación actual.

3. *Funciones del puesto.*

La función principal es:

Dirigir, programar y controlar los servicios de seguridad y el mantenimiento del orden público, velando por la eficacia y eficiencia de los recursos tanto personales como materiales.

Las funciones específicas del puesto son las siguientes:

— Proponer al Alcalde o, en su caso, al Concejal Delegado, medidas organizativas y proyectos de planificación y coordinación para la máxima eficacia del servicio.

— Proponer al Alcalde o Alcalde o, en su caso, al Concejal Delegado la ampliación de la plantilla, teniendo en cuenta los servicios a prestar a la ciudadanía, los objetivos a realizar y el personal necesario para el cumplimiento de las tareas relacionadas con los mismos.

— Definir los grupos y los agentes que integrarán cada uno de ellos.

— Designar, en su caso, al personal que ha de integrar cada uno de los servicios especiales.

— Dirigir y coordinar la actuación y funcionamiento de todos los servicios de la Policía Local, así como dictar las órdenes e instrucciones que considere oportunas para el mejor funcionamiento de los mismos.

— Proponer al Alcalde o Concejal Delegado el calendario laboral anual de la plantilla, así como autorizar los días de vacaciones de los agentes.

— Elaborar propuestas presupuestarias de la Policía Local.

— Proponer al Alcalde la iniciación de procedimientos disciplinarios a los miembros del Cuerpo cuando su actuación así lo requiera, así como felicitarles para que sean recibidos por el personal del Cuerpo.

— Elaborar las propuestas necesarias para garantizar la formación profesional y permanente de los trabajadores.

— Formar parte de las Juntas Locales de Seguridad y Protección Civil en caso de estar constituidas.

— Asistir a la Corporación en los actos públicos en que comparezca y se le requiera.

— Mantener el nivel de comunicación necesario con las jefaturas de otros cuerpos policiales, con la Jefatura Provincial de Tráfico, con los órganos de protección civil y con los organismos judiciales, con el fin de hacer efectiva la colaboración en materia de tráfico, seguridad y protección ciudadana.

— Participar, cuando sea requerido, en las comisiones que se establezcan en el Ayuntamiento.

— Convocar reuniones con el Grupo de Agentes de primer nivel del Cuerpo para tratar temas que considere de interés y que afecten a servicios o personas.

— Coordinar las adquisiciones o compras de material a realizar.

— Reunirse el primer lunes de mes con el alcalde o concejal delegado para tratar temas de interés para el municipio.

— Cualesquiera otras que se establezcan en la legislación vigente.

EK\CV GAO-I-2023-02639

*4. Izangaiek bete beharreko baldintzak.*

Ondorengo baldintzak bete beharko dira onartua izateko eta lehiaketan parte hartzeko (2. oinarri orokorrak eskatzen dituenaz gain):

a) Oñatiko Udaleko Administrazio Bereziko Eskalako karrerako funtzionarioa izatea, Zerbitzu Berezien Azpieskalan, Udaltzainen Klasean.

b) Ikuskapen eskalako kategoriaren batean egiazko zerbitzuko 4 urte eman izana.

c) Zerbitzu aktiboan egotea, edo zerbitzu berezietan, eta baita ere seme-alabak edo familiakoak zaintzeko eszedentzian, edota genero indarkeriagatiko eszedentzian egotea.

d) Ez izatea dolozko delituagatik kondenatua, ezta Administrazio publiko baten zerbitzutik bereizia edo funtzio publikoak egiteko ezgaitua ere; hargatik eragotzi gabe birgaitua izateko aukera, arau penalen eta administratiboen arabera.

e) Euskal Herriko Poliziaren hautaketa eta prestakuntza araudia onartzen duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan agertzen diren baztertzeko osasunkasuen taulako kasuren batean ez egotea.

f) Eskatutako tituluak izatea:

I. Batxilergoa, titulu teknikoa edo baliokidea, edo horiek eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea.

II. B motako gidabaimena edo baliokidea.

III. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 hizkuntza-eskakizuna (3. HE).

h) Deklarazioaren bidez armak eramateko konpromisoa hartzea, eta hala badagokio, erabiltzeko.

Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen, prozeduratik kanpo geratuko litzateke, interesdunak entzun eta gero, eta hautaketa prozesua deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri egun horretan bertan.

*5. Izaera pertsonaleko datuen babesa.*

4. oinarri orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

*6. Hautagaiak onartzea, epaimahai kalifikatzailea eta prozesuari buruzko informazioa.*

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko oinarri hauetan ezarritakoa bete beharko da, salbuespen hauekin:

Soilik modu elektronikoan aurkeztutako eskaerak onartuko dira, bai Oñatiko Udalaren erregistro elektronikoaren bitartez egindakoak (www.onati.eus), baita urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan aipatzen dituen gainerako erregistro elektronikoen bitartez egindakoak ere.

— Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita hogei (20) lanegunekoa izango da.

Bestalde, deialdia argitaratzeko eta hari dagozkion komunikazio eta jakinarazpenak egiteko, kasuan kasurako oinarri berezi hauetan eta, oro har, 5. oinarri orokorrean ezarritakoa beteko da. Baina moduari dagokionean, prozesu honetatik eratorritako komunikazio guztiak modu elektronikoan egingo dira interesatuekin.

Hautagaiak 6. oinarri orokorraren arabera onartuko dira.

6.1. Balorazio batzordea.

Guztira, bost kidek osatuko dute Balorazio Batzordea: batzordeburu bat, idazkari bat eta hiru batzordekide.

Idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

*4. Requisitos de los aspirantes.*

Para ser admitido y tomar parte en el concurso se deberán cumplir los siguientes requisitos (además de los exigidos por la Base General 2.ª):

a) Ser funcionario de carrera de la Escala de Administración Especial del Ayuntamiento de Oñati, en la Subescala de Servicios Especiales, en la Clase de Policía Local.

b) Haber prestado 4 años de servicio efectivo en alguna de las categorías de la escala de inspección.

c) Encontrarse en situación de servicio activo, servicios especiales, excedencia por cuidado de hijos o familiares o excedencia por razón de violencia de género.

d) No haber sido condenado por delito doloso, separado del servicio de una Administración Pública o incapacitado para el ejercicio de funciones públicas, sin perjuicio de la posibilidad de ser rehabilitado conforme a las normas penales y administrativas.

e) Las exclusiones contenidas en el Decreto 36/2004, de 17 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de selección y formación de la Policía del País Vasco no estar en alguno de los casos de la tabla de casos de salud.

f) Estar en posesión de las titulaciones exigidas:

I. Estar al corriente de pago de los derechos de acceso al Bachillerato, título técnico o equivalente.

II. Permiso de conducir clase B o equivalente.

III. Perfil lingüístico C1 (PL3) del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

h) Compromiso de portar y, en su caso, utilizar armas mediante declaración.

En cualquier momento del procedimiento, si el Tribunal conociera que alguno de los aspirantes no los cumple, quedaría excluido del mismo, previa audiencia de los interesados, dando cuenta de ello a la autoridad convocante del proceso selectivo en la misma fecha.

*5. Protección de datos de carácter personal.*

Se aplicará lo dispuesto en la base general 4.ª

*6. Admisión de candidatos, tribunal calificador e información del proceso.*

Las solicitudes de participación deberán cumplimentarse conforme a lo establecido en las presentes bases con las siguientes excepciones:

Únicamente se admitirán las solicitudes presentadas electrónicamente, bien a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Oñati (www.onati.eus), bien a través del resto de registros electrónicos a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— El plazo de presentación de solicitudes será de veinte (20) días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de las bases de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Por otra parte, la publicación de la convocatoria y las comunicaciones y notificaciones correspondientes se realizarán de acuerdo con lo establecido en las presentes bases específicas para cada caso y, en general, en la base general 5. Pero en cuanto a la forma, todas las comunicaciones derivadas de este proceso se realizarán de forma electrónica con los interesados.

Las candidaturas serán admitidas conforme a la base general 6.ª.

6.1. Comisión de valoración.

La Comisión de Valoración estará compuesta por un Presidente, un Secretario y tres vocales.

El Secretario tendrá voz pero no voto.

EK\CV GAO-I-2023-02639

Euskal Polizia Legearen testu bategina onartzen duen 1/2020 Legegintza Dekretuaren 67.1. artikuluaren arabera, Euskal Polizia Akademiak izendatutako kide bat egongo da, bere izenean arituko dena.

Udal organo eskudunak izendatuko du jarduketak hasi aurretik, eta iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hautagaien behin-behineko zerrenda onartzearekin batera.

Batzordeko kideek karrerako funtzionarioak izan beharko dute, deitutako lanpostuari atxikitako titulazio talde berekoak edo altuagokoak, eta ahalegina egingo da gutxienez erdiek deitutako postuko sail funtzionalean eginkizunak eginak izateko edo ezagutzak izateko.

Balorazio Batzordeko kideek eta aholkulari espezialistek ezingo dute jardun, edo interesdunek ezetsi ahal izango dituzte edozein momentuan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio arrazoiren bat baldin badago, edo deialdia argitaratu aurreko bost urteetan izangaiak hautatze probetarako prestatzeko lanak egin badituzte.

Balorazio Batzordea eratzeko saioan, batzordeburuak adierazpen formal bat egingo du esanez ez dagoela halako inguruabarren baten pean, eta, jarraian, beste kideei halako adierazpen formal bat eskatuko die. Eratze saioan parte hartu ez duten Balorazio Batzordeko kideek, baita aholkulari espezialistek ere, parte hartzen duten lehen saioan egingo dute adierazpen formal hori.

Aholkulari espezialistak izendatu ahal izango dira Balorazio Batzordeari laguntzeko. Beren espezialitate teknikoetan besterik ez dute jardungo, eta hitz egin ahal izango dute, baina ez bozkatu.

Balorazio Batzordearen osaerak bere kideen egokitasuna eta kualifikazioa bermatuko du, baita gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua dagoela ere, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 20.6 artikuluari jarraikiz.

Aukeraketa Batzordeak independentzia, diskrezionalitate tekniko eta objektibotasun osoz jardungo du, eta bere proposamenak lotesleak izango dira administrazioarentzat.

Balorazio Batzordearen jarduketek duten diskrezionaltasun teknikoaren kalterik egin gabe, beren erabakiak arauak eta deialdiaren oinarriak beteta arrazoitu beharko dira.

Balorazio Batzordea aldez aurretik bilduko da, idazkariak eginiko deialdiari jarraikiz, bere batzordeburuaren aginduz. Balioz eratzeko, saioak eta eztabaidak egin, eta erabakiak hartze aldera, beharrezkoa izango da batzordeburua eta idazkaria bertan egotea (aurrez aurre edo urrutitik), bai eta horien ordezkoak eta, gutxienez, kideen erdia ere.

Aurrez aurre edo urrutitik kide anitzeko organoko kide guztiak edo, hala badagokio, horien ordezkoak, balioz eratu ahalko dira kide anitzeko organo gisa, saioak eta eztabaidak egin eta erabakiak hartu ahal izateko, aldez aurretik deialdirik egiteko beharrik gabe, kide guztiek hala erabakitzen dutenean.

Erabakiak bertaratuen botoen gehiengoarekin hartuko dira.

Berdinketak batzordeburuaren kalitateko botoaren bidez ebatziko dira.

Ez etortze aren edo gaixotasunaren kasuan eta, oro har, arrazoi justifikazio bat dagoenean, Balorazio Batzordeko kide titularren lekua euren ordezkoek hartuko dute.

Batzordeburuari eta bere ordezkoari eragiten dien leku huts, ez etortze, gaixotasun edo beste legezko kausaren bat gertatzekotan, Balorazio Batzordean hierarkia, antzinatasun eta adin altuena duen kideak ordezkatuko ditu, hurrenez hurren.

Según el artículo 67.1 del Decreto Legislativo 1/2020, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, existirá un miembro designado por la Academia Vasca de Policía que actuará en su nombre.

Será designado por el órgano municipal competente con carácter previo al inicio de las actuaciones y será publicado en el tablón de anuncios y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, junto con la aprobación de la lista provisional de candidatos.

Los miembros de la Comisión deberán ser funcionarios de carrera del mismo o superior grupo de titulación adscrito al puesto convocado, procurando el desempeño de funciones o conocimientos en el departamento funcional del puesto convocado por al menos la mitad.

Los miembros de la Comisión de Valoración y los asesores especialistas no podrán actuar o podrán ser recusados en cualquier momento por los interesados cuando concurra alguna de las causas de abstención previstas en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, o cuando hayan realizado tareas de preparación para las pruebas selectivas en los cinco años anteriores a la publicación de la convocatoria.

En la sesión constitutiva de la Comisión de Valoración, el Presidente o la Presidenta realizará una declaración formal en la que manifieste que no se encuentra sometido a ninguna de estas circunstancias, solicitando a continuación una declaración formal a los demás miembros. Esta declaración formal se realizará en la primera sesión en la que participen los miembros de la Comisión de Valoración que no hayan participado en la sesión constitutiva, así como asesores especialistas.

Podrán nombrarse asesores especialistas para el apoyo a la Comisión de Valoración. Sólo actuarán en sus especialidades técnicas y podrán hablar pero no votar.

La composición de la Comisión de Valoración garantizará la idoneidad y cualificación de sus miembros, así como la representación equilibrada de mujeres y hombres, de conformidad con el artículo 20.6 de la Ley del Parlamento Vasco 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La Comisión de Selección actuará con plena independencia, discrecionalidad técnica y objetividad, siendo sus propuestas vinculantes para la Administración.

Sin perjuicio de la discrecionalidad técnica de las actuaciones de la Comisión de Valoración, sus decisiones deberán ser motivadas conforme a las normas y bases de la convocatoria.

La Comisión de Valoración se reunirá previamente, de acuerdo con la convocatoria efectuada por el Secretario, por orden de su Presidente. Para la válida constitución, sesiones y deliberaciones, y para la adopción de acuerdos, será necesaria la presencia, presencial o a distancia, del Presidente y del Secretario, así como de sus suplentes y, al menos, de la mitad de sus miembros.

Podrán constituirse válidamente, de forma presencial o a distancia, todos los miembros del órgano colegiado o, en su caso, sus suplentes órganos colegiados para la celebración de sesiones, deliberaciones y la adopción de acuerdos, previa convocatoria innecesariamente, cuando así lo acuerden todos sus miembros.

Los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos de los asistentes.

Los empates se dirimirán con el voto de calidad de la Presidencia.

En caso de inasistencia o enfermedad y, en general, cuando exista una causa justificada, los miembros titulares de la Comisión de Valoración serán sustituidos por sus suplentes.

En caso de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte a la Presidencia y a su suplente, la Comisión de Valoración estará representada por los miembros de mayor jerarquía, antigüedad y edad, respectivamente.

EK\CV GAO-I-2023-02639

Idazkaria eta bere ordezkoa ordezkatze ari dagokionez, leku huts, ez etortze, gaixotasun edo beste legezko kausaren bat gertatzekotan, Balorazio Batzordeko beste edozeinek ordezkatuko ditu, kideen gehiengoak erabakitzen duenari jarraikiz.

7. *Hautaketa prozesua.*

Hautaketa sistema lehiaketa berezia da eta hautaketa prozesua 8. eta 9. oinarri orokorretan ezarritakoa osatuz, oinarri hauetan adierazten denaren arabera egingo da.

7.1. Lehiaketa.

Onartu eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera 10 lan eguneko epea emango zaie onartutako izangaiei egoki deritzaten merezimenduak alegatu eta egiaztatu ditzaten. Horretarako egina dagoen inprimakia erabili beharko dute, udalak webgunean eskuragarri jarriko duena.

Ez da beharrezkoa izango parte-hartzailearen Oñatiko Udaleko espediente pertsonalean jada badauden merezimenduen ziurtagiriak aurkeztea edo interesatuak aurretik udalean aurkeztu dituenak. Azken kasu horretan, parte-hartzaileek zein prozeduretan aurkeztu zituzten adierazi beharko dute, kontuan hartuak izan daitezen.

Lehiaketak bi fase izango ditu.

* Lehiaketaren 1. fasea.

Fase honetan guztira 40 puntu lortu ahal izango da eta irizpide hauen arabera baloratuko dira merituak:

— Emandako zerbitzuak: 20 puntu lortuko dira gehienez.

1. mailako udaltzain edo udaltzain kategorian: 0,25 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, 6 puntu arte.

Agente lehen kategorian: 0,35 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, 10 puntu arte.

Ofizial ondoko kategorian: 0,50 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, 14 puntu arte.

— Antzinatasuna:

Udaltzaingoan lan egiten duten antzinatasuna balioztatuko da. Gehienez 3 puntu emango dira, hilabete bakoitzeko 0,1 puntu.

Antzinatasuna zenbatzeko, aintzat hartuko dira karrerako funtzionarioa izan aurretik aitortutako emandako zerbitzuak.

Antzinatasunari dagokionez, haurrak edota familiakoak zaintze agatik eszedentzian egondako aldiak, haurrak edota familiakoak zaintzeko lanaldi murriztuan egondakoak nahiz zerbitzu berezietan aritutako denbora kontuan hartuko da.

— Maila pertsonal egonkortasuna:

Gehienez 2 puntu emango dira; honela banatuko dira maila pertsonal egonkortuaren arabera:

Eskainitako lanpostuaren lanpostu-mailako osagarriaren maila bera edo handiagoa: 2 puntu.

Eskainitako lanpostuaren lanpostu- mailako osagarria baino maila bat edo bi gutxiago: 1,5 puntu.

Eskainitako lanpostuaren lanpostu- mailako osagarria baino bi mailatik gora gutxiago: puntu 1.

— Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak:

— Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandako lanpostuarekin lotutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak gainditzeagatik, gehienez ere 5 puntu.

a. 10 ordu arteko ikastaroak: 0,05 puntu.

b. 10-30 orduko iraupena: 0,10 puntu.

c. 31 eta 60 ordu bitarteko iraupena: 0,20 puntu.

d. 61 eta 100 ordu bitarteko iraupena: 0,50 puntu.

e. 100 ordutik gorako ikastaroak: 0,75 puntu.

En caso de vacante, inasistencia, enfermedad u otra causa legal en relación con la sustitución del Secretario y su suplente, éste será sustituido por cualquier otra persona de la Comisión de Valoración, de acuerdo con lo que acuerde la mayoría de sus miembros.

7. *Proceso de selección.*

El sistema de selección es un concurso especial que completa el proceso selectivo establecido en las bases generales 8.ª y 9.ª se hará de acuerdo con lo que aquí se indica.

7.1. Concurso.

Con la publicación de la relación definitiva de admitidos y excluidos se concederá a los aspirantes admitidos un plazo de 10 días hábiles para que aleguen y acrediten los méritos que estimen oportunos. Para ello deberán utilizar el formulario pertinente, que el ayuntamiento pondrá a disposición en la web.

No será necesaria la presentación de certificaciones de méritos ya existentes en el expediente personal del participante en el Ayuntamiento de Oñati o que hayan sido presentadas previamente por el interesado en el Ayuntamiento. En este último caso, los participantes deberán indicar el procedimiento en el que fueron presentados para que sean tenidos en cuenta.

La competición constará de dos fases.

* 1.ª fase del concurso.

En esta fase se podrá obtener un total de 40 puntos, valorándose los méritos conforme a los siguientes criterios:

— Servicios prestados: hasta un máximo de 20 puntos.

En la categoría de Policía Local o Policía Local de 1.ª: 0,25 puntos por mes trabajado, hasta 6 puntos.

En la categoría de Agente primero: 0,35 puntos por mes trabajado, hasta 10 puntos.

En la categoría de suboficial: 0,50 puntos por mes trabajado, hasta 14 puntos.

— Antigüedad:

Se valorará la antigüedad en la Policía Local. Se valorará con un máximo de 3 puntos, 0,1 puntos por mes.

A efectos de antigüedad se tendrán en cuenta los servicios prestados con anterioridad a la condición de funcionario de carrera.

En cuanto a la antigüedad, los periodos de excedencia por cuidado de hijos y/o familiares se tendrán en cuenta tanto los que hayan estado en jornada reducida para el cuidado como el tiempo de servicios especiales.

— Estabilidad en el nivel personal:

Se valorará con un máximo de 2 puntos que se distribuirán de la siguiente manera en función del nivel personal consolidado:

Nivel de complemento de destino igual o superior al del puesto ofertado: 2 puntos.

Uno o dos niveles inferiores al complemento de destino del puesto ofertado: 1,5 puntos.

Más de dos niveles por debajo del complemento de destino del puesto ofertado: 1 punto.

— Cursos de formación y perfeccionamiento:

— Hasta un máximo de 5 puntos, por haber superado cursos de formación y perfeccionamiento relacionados con el puesto de trabajo impartidos por la Academia Vasca de Policía y Emergencias Arkaute.

a. Cursos de hasta 10 horas de duración: 0,05 puntos.

b. Entre 10 y 30 horas de duración: 0,10 puntos.

c. Entre 31 y 60 horas de duración: 0,20 puntos.

d. Entre 61 y 100 horas de duración: 0,50 puntos.

e. Cursos de más de 100 horas de duración: 0,75 puntos.

EK\CV GAO-I-2023-02639

— Titulazio akademiko ofizialak (gehienez 2 puntu). Zuzenbideko, Kriminologiako, Hiritar Segurtasuneko, Babes Zibileko eta Epaimahai kalifikatzaileak aipatutako esparruekin eta plazarekin zerikusia dutela deritzen titulazioak horrela puntuatuko dira:

Lizentziatura titulua, unibertsitate gradua edo baliokidea: 0,5 puntu.

Diplomatura maila edo baliokidea: 0,3 puntu.

— Oposizioak gainditu izana (gehienez 10 puntu).

1. mailako udaltzain kategoriara karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuan oposizio fasea gainditu izanagatik: 5 puntu.

Agente lehen kategorian karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuan oposizio fasea gainditu izanagatik: 7,5 puntu.

Udaltzaingoaren Ofizial ondoko edo Ofizial kategoriara karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuan oposizio fasea gainditu izanagatik: 10 puntu.

Oñatiko Udalak deitutako hautaketa prozesuen kasuan, instantzian alegatu beharko da egoera hori baina ofizioz egiaztatuko du udalak.

Lehiaketaren lehen fasea gainditzeko gutxienez 10 puntu lortu beharko dira.

Merituak, eskaerak aurkezteko azken egunera arte baloratuko dira.

7.2. Merituen ebazpena.

Merezimenduen puntuazioa zenbatekoa den jakiteko aukeraketa batzordeko kideek emaniko puntuazio guztien batez besteko aritmetikoa kalkulatuko da.

Ematen diren puntuazioak eta azken balorazioa aktan agertaraziko dira.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den gainerakoan, oinarri orokorretako 8.4. atalaren arabera ebatziko da lehiaketa.

7.3. Euskara.

Lanpostuari 3. hizkuntza eskakizuna esleitu zaio, eta derrigortasun data betea du. Hortaz, hizkuntza eskakizun hori ezinbestez egiaztatu behar da lanpostua bete ahal izateko.

Euskara maila egiaztatzeko probaren deialdia horretarako eskaerarik badago soilik egingo da, eta berori 8.3. oinarri orokorraren arabera gauzatuko da.

*8. Azken kalifikazioa.*

Epaimahaiak lehiaketaren azken kalifikazioak zehaztuko ditu, 9.1. eta 9.2. oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, behin-behineko emaitzak argitaratuz eta izangaiei erreklamatzeko 5 lan eguneko epea emanez, behin betiko emaitzak onartu aurretik.

Ebazpen proposamena puntuazio gehien lortu duen hautagaiaren aldekoa izango da, bi faseetako emaitzak batuz.

Puntuazioan berdinketa emanez gero, emakumeari emango zaio lehentasuna, baldin eta deialdiaren lanpostuaren azpitaldean emakumeen ordezkaritza % 40koa baino gutxiagokoa bada.

Puntuazioan berdinketak jarraituz, emandako zerbitzuen ataleko merezimenduetako puntuazioak hartuko dira aintzat. Hala ere berdinketa hausten ez bada, lehiatzaileak orain dauden kategoriako karrerako funtzionario noiz egin ziren hartuko da kontuan, eta hala ere ezer argitzen ez bada, funtzionario izateko aukeraketa-prozesuko lehentasun-hurrenkera.

Lehiaketa ebazteko epea gehienez ere lau hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko azken egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

— Titulaciones académicas oficiales (hasta 2 puntos). Las titulaciones que se consideren relacionadas con los ámbitos y plaza señalados por el Tribunal Calificador de Derecho, Criminología, Seguridad Ciudadana, Protección Civil, se puntuarán de la siguiente manera:

Título de licenciatura, grado universitario o equivalente: 0,5 puntos.

Diplomatura o equivalente: 0,3 puntos.

— Haber superado las oposiciones (máximo 10 puntos).

Por haber superado la fase de oposición en el proceso selectivo para el ingreso como funcionario de carrera a la categoría de Policía Local de 1.ª: 5 puntos.

Por haber superado la fase de oposición en el proceso selectivo para el ingreso como funcionario de carrera en la categoría de agente primero: 7,5 puntos.

Por haber superado la fase de oposición en el proceso selectivo para el ingreso como funcionario de carrera a la categoría de Oficial adjunto u Oficial de la Policía Local: 10 puntos.

En el caso de los procesos selectivos convocados por el Ayuntamiento de Oñati, esta circunstancia deberá ser alegada en instancia pero será acreditada de oficio por el Ayuntamiento.

Para superar la primera fase del concurso será necesario obtener un mínimo de 10 puntos.

Los méritos se valorarán hasta el último día de presentación de solicitudes.

7.2. Resolución de méritos.

La puntuación media de todas las puntuaciones otorgadas por los miembros de la comisión de selección se calculará el aritmético.

Las puntuaciones otorgadas y la valoración final se harán constar en acta.

En lo no previsto en estas bases, el concurso se resolverá conforme al apartado 8.4 de las bases generales.

7.3. Euskera.

El puesto tiene asignado el perfil lingüístico 3 con fecha de preceptividad vencida. Por tanto, este perfil lingüístico es imprescindible para poder cubrir el puesto.

La convocatoria de la prueba de acreditación del nivel de euskera se realizará únicamente en el caso de que exista solicitud para ello, y se realizará conforme a la base general 8.3.

*8. Calificación final.*

El Tribunal determinará las calificaciones finales del concurso, de acuerdo con lo establecido en las bases generales 9.1 y 9.2, publicando los resultados provisionales y concediendo a los aspirantes un plazo de 5 días hábiles para reclamar, antes de la aprobación de los resultados definitivos.

La propuesta de resolución será favorable al candidato que haya obtenido mayor puntuación, sumando los resultados de ambas fases.

En caso de empate en la puntuación, se dará preferencia a la mujer si la representación de las mujeres en el subgrupo del puesto convocado es inferior al 40 %.

Siguiendo los empates en la puntuación, se tendrán en cuenta las puntuaciones de los méritos de la sección de servicios prestados. En caso de no producirse empate, se tendrá en cuenta la fecha en la que los aspirantes fueron nombrados funcionarios de carrera de la categoría en la que se encuentran y, en caso de que no se aclare nada, el orden de prelación en el proceso selectivo para acceder a la condición de funcionarios.

El plazo máximo para resolver el concurso será de cuatro meses a contar desde el día siguiente al de la fecha límite de presentación de solicitudes.

EK\CV GAO-I-2023-02639

*9. Agirien aurkezpena.*

Betebeharrak betetzen direna egiaztatzeko 4. oinarri orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

*10. Izendapen proposamena.*

Izendatze proposamena Udaleko Laneko Osasunaren Atalak «gainditua» kalifikazioa ematearen mende egongo da; Euskal Herriko Poliziaren hautespen eta prestakuntza araudia onartu zeneko Dekretua bigarrenez aldatzeko otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinean aurreikusitako baztertze medikurako taularen araberakoa izango da hori (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2004ko martxoaren 2a, 42. zk.).

Prozesu honetako aldiak bukatu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak alkateari aurkeztuko dio kalifikazio onena lortu duen izangaia izendatzeko proposamena jasotzen duen akta.

*11. Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia.*

Praktiketako funtzionario izendatutako izangaiak prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia egin beharko ditu. Biak ala biak derrigorrezkoak eta baztertzaileak izango dira, banan-banan hartuta.

Izangaiak horietan parte hartzen ez badu edo gainditzen ez baditu, automatikoki hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, eta hark deialdi honen bidez bete nahi diren kategorietako lanpostuak eskuratzeko izan ditzakeen eskubide guztiak galduko ditu.

Hala ere, ezinbesteko kasuetan, izangaiek ezin badiote ikastaroari edo praktikaldiari ezarritako epean ekin, edo ezin badute amaitu, egoera hori eragin duten arrazoiak desagertu hurrengoetan egin ahal izango dute. Arrazoiak prestakuntza-ikastaroaren antolaketaren eta garapenaren ardura duen organoak aztertuko ditu, eta berak emango du dagokion ebazpena.

— Prestakuntza-ikastaroa. Ikastaro akademiko selektiboa izango da eta aurrez zehaztutako ikasketa-plana eta iraupena izango du. Honen hasiera Euskal Herriko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren ebazpenez xedatuko da.

— Praktikaldia. Praktikaldia hasi baino lehen, deialdia egin duen organoaren ebazpen bitartez honako hauek xedatu beharko dira: zein izango den praktiken organo arduraduna, ebaluazio-sistema, balioztapen-arduradunak, iraupena, jomuga-unitateak, eta hautespen-prozeduraren fasea behar bezala balioztatzeko beste edozein atal.

Hautaketa-prozeduraren fase honekin zerikusia duten alderdi guztietarako, 1/2020 Legegintzako Dekretuak (uztailaren 22koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duenak) eta 315/1994 Dekretuak (uztailaren 19koak, Euskal Herriko Poliziaren Hautespen eta Prestakuntza Araudia onartzen duenak) xedatutakoari jarraituko zaio.

*12. Karrerako funtzionario izendatzea eta lanpostuaz jabetzea.*

Praktikaldia bukatu eta hurrengo 2 hilabeteetan zehar, deialdia egin duen organoak hautaketa-prozesuan lehena geratu den izangaia izendatuko du. Ebazpen horretan bertan, jatorrizko lanpostuaren etetea jasoko da. Izendapen hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, 11.4 oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat.

Izendatutako izangaiak, izendapena argitaratu eta bi (2) laneguneko epean, plaza hartu beharko du jabetzan, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Epea bukatu eta interesduna Udalera agertuko ez balitz, haren lanpostuaren jabe egitera, eskubide guztiak galduko ditu, eta erabakitako izendapena indargabetu egingo da. Era berean, prestakuntza ikastaroa edota praktikaldia gainditzen ez badu edota eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

*9. Presentación de documentos.*

Para la acreditación del cumplimiento de las obligaciones se aplicará lo establecido en la base general 4.ª

*10. Propuesta de nombramiento.*

La propuesta de nombramiento estará sujeta a la calificación de «aprobado» por la Sección de Salud Laboral del Ayuntamiento, de acuerdo con la tabla de exclusión médica prevista en el anexo del Decreto 36/2004, de 17 de febrero, de segunda modificación del Decreto por el que se aprobó el Reglamento de selección y formación de la Policía del País Vasco (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 42, de 2 de marzo de 2004).

Finalizadas las fases de este proceso, el Tribunal Calificador elevará al Alcalde el acta con la propuesta de nombramiento del candidato mejor calificado.

*11. Curso de formación y periodo de prácticas.*

El/la aspirante designado/a funcionario/a en prácticas deberá realizar el curso de formación y el periodo de prácticas. Ambos tendrán carácter obligatorio y eliminatorio, individualmente considerados.

En el supuesto de que el/la aspirante no participe en las mismas o no las supere, quedará automáticamente excluido del proceso selectivo, perdiendo éste todos los derechos que pudiera tener para acceder a las plazas de las categorías que se pretenden cubrir a través de esta convocatoria.

No obstante, en los casos de fuerza mayor, cuando los/las aspirantes no puedan iniciar o finalizar el curso o periodo de prácticas dentro del plazo establecido, podrán hacerlo en los siguientes casos en que desaparezcan las causas que lo motivaron. Las razones serán analizadas por el órgano responsable de la organización y desarrollo del curso de formación, que dictará la resolución correspondiente.

— Curso de formación. Será un curso académico selectivo y tendrá un plan de estudios y una duración predeterminadas. Su inicio se determinará por Resolución de la Academia Vasca de Policía y Emergencias del País Vasco.

— Periodo de prácticas. Con carácter previo al inicio del período de prácticas, mediante resolución del órgano convocante se determinará el órgano responsable de las prácticas, el sistema de evaluación, los responsables de valoración, la duración, las unidades de destino y cualquier otro apartado para la correcta valoración de la fase del procedimiento selectivo.

En todos los aspectos relacionados con esta fase del procedimiento selectivo se estará a lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, y en el Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.

*12. Nombramiento como funcionario de carrera y toma de posesión.*

Durante los 2 meses siguientes a la finalización del periodo de prácticas, el órgano convocante designará al aspirante que haya quedado primero en el proceso selectivo. En la misma resolución se hará constar la suspensión del puesto de origen. Dicho nombramiento se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de acuerdo con lo establecido en la base general 11.4.

El aspirante designado, en el plazo de dos (2) días hábiles desde la publicación del nombramiento, deberá tomar posesión de la plaza, salvo fuerza mayor.

Si transcurrido dicho plazo el interesado no se personara en el Ayuntamiento para tomar posesión de su puesto de trabajo, perderá todos sus derechos y quedará sin efecto el nombramiento acordado. Asimismo, si no superara el curso de formación o el periodo de prácticas o no acreditara reunir los requisitos exigidos, quedará excluido del proceso selectivo.

EK\CV GAO-I-2023-02639

*13. Gorabeherak eta aurkaratzeak.*

Epaimahaiak eskumena du sortzen den edozein zalantza argitzeko eta, oinarri hauek xedatu gabeko egoeratan, hautapen prozesua behar bezala betetzeko erabakiak hartzeko.

Oinarri hauek nahiz deialdietatik eta Epaimahai kalifikatzailearen jardunetik eratorritako administrazioko egintzak aurkatu ahal izango dituzte interesdunek, bi lege hauetan onartutako kasuetan eta moduan: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Eskumena arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

*13. Incidencias e impugnaciones.*

El Tribunal queda facultado para resolver cualquier duda que se suscite y, en los supuestos no previstos en estas Bases, tomar las decisiones necesarias para el correcto cumplimiento del proceso selectivo.

Las presentes bases, así como los actos administrativos derivados de las convocatorias y de la actuación del Tribunal Calificador, podrán ser impugnados por los interesados en los supuestos y forma admitidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Competencia Contencioso-Administrativa.

EK\CV GAO-I-2023-02639